

Espediente mota: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Zerbitzu kontratua, prozedura irekia. Izapidetze urgentea

Espediente zenbakia: ZE9-III-75

Dokumentuaren erreferentzia: Plegu_adm_2017_eraikinen-garbitasuna_bh bt

BERMEOKO ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: Bermeoko udalerriko Gizarte eta Kultura etxea, Jose Antonio Egia Musika Eskola, Nestor Basterretxea aretoa, Bermeoko komun publikoak (Lamera, Almika, Tala, Txirritxa, Erribera eta Erreten), Kurtzio-Zarragoitxiko igogailua eta udal azokako garajeen garbitasuna.

Kontratuaren xedea ikusita, zerbitzuen administrazio-kontratua da, guzti hori 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenaren (aurrerantzean SPKLTB) 10 eta 19.artikuluak kontuan hartuta (II. Eranskina.14. Eraikinak garbitzeko zerbitzua). CPV (Erreferentzia zenbakia): 90911200-8

Kontratu hau burutzeko beharrezkoak aipatutako eraikinak garbitzeko Udalaren berezko baliabide pertsonal eta teknikoak faltan oinarritzen da. Gainera, Bermeoko udalerriko Gizarte eta Kultura etxea, Jose Antonio Egia Musika Eskola, Nestor Basterretxea aretoa, Bermeoko komun publikoak (Lamera, Almika, Tala, Txirritxa, Erribera eta Erreten), Kurtzio-Zarragoitxiko igogailua eta udal azokako garajeen garbitasunerako aurretik dugun kontratua iraungitzen da.

2. ORGANO ESKUDUNA

SPKLTBaren 51. artikuluan eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, Kontratazio-organoa Bermeoko Udaleko Alkatea da, eta udalaren izenean jardungo du. Hala ere, 2016ko urtarrilaren 25ean 43. Alkatetzaren Dekretuz eskumen hori eskuordetuta dauka Tokiko Gobernu Batzarrak.

Organoak administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du eta, hortaz, kontratua interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak konpontzeko, herri-intereseko arazoak direla-eta aldatzeko, suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondoreak zein diren zehazteko ahalmenak ditu, ezargarri diren arauak ezartzen dutenari lotuta. Horren inguruan ematen dituen erabakiak betearazleak dira; nolana ere, kontratatzaileak auzibide eskudunera jo dezake aurka egiteko.

3. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Zerbitzu osoa egiteko epea urtebetekoa izango da. Ez da luzapenik aurreikusten.

Hala ere, kontratu hau iraungiko denean, ez bada barria esleitu eta interes orokorreko arrazoiak badaude, esleipenduna derrigortuta egongo da kontratatutako baldintza berdinetan kontratuarekin jarraitzen, beti ere, kontratu berria esleitu arte; esleipen hori ahalik eta arinen gauzatu beharko da.

4. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa lizitazioaren aurrekontu gisa erabiliko dena, hau izango da: 146.500,00 €, BEZ kanpo. %21eko BEZari dagokion zenbatekoa 30.765,00 eurokoa da (Danatara: 177.265,00 €.).

Eskaintzaileek diru kopuru hori bardindu edo hobetu dezakete, baina beti ere, kontuan hartuko da eskaintzaileek bardindu edo hobetutako prezio horretan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) kanpo dagoela. Nolanahi ere, eskaintzaileak, adierazi beharko du zein den prezioa eta zein den BEZari dagokion diru zenbatekoa. Kopuru horretan barneratutzat joko dira kontratu horretako xede diren zerbitzuak gauzatzeko beharrezkoak diren zerga, tasa, kostu eta baliabide guztiak.

5. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da 2017 urteko aurrekontuaren kontura eta, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak. Kontratuaren indarraldia kreditu horiek izatearen mende geldituko da.

Aplikagarria den partida hau izango da: 00600-92920-227.01.04

6. NOLA ORDAINDU

Ordainketa hilero egingo da, esleipendunak aurkezten duen faktura Udalak onartu ondoren.

Fakturarekin batera, egindako zerbitzuen eta izandako istiluen lan-partea aurkeztu beharko da.

Gainera, ez badira eransten zerbitzu- kontratu honetan diharduten langileen TC1 eta TC2 kotizazio boletinen kopia eta guztien soldatak ordaindu izanaren egiaztapenak, ez dira izapidetuko hileko fakturak.

7. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezarri denarekin bat etorriz –arau horren bidez martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatu zen, alegia, Espainiako ekonomia desindexatzeari buruzkoa–, bai SPKLTB 89. artikuluan ezarri denarekin bat etorriz, kontratu honi ez dagokio berrikuspena egitea.

8. BERMEAK

8.1. Behin-behineko bermea

Lehiatzaileek behin-behineko bermea jarri behar dute lehiaketa honetan parte hartzeko. Berme horren zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren %3koa izango da, BEZa kanpo, (4.365,00€). Kontratuaren esleipena egin eta gero, diru-kopuru hori ofizioz itzuli egingo da.

Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dutela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo duela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo kontratua esleitu eta gero esleipendunak behin betiko bermerik jartzen ez badu, edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearazi egingo da.

Behin-behineko bermea eratu behar da SPKLTBko 103. artikuluan jaso diren aginduekin eta HAKLEOko 55. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denarekin bat etorriz; hain zuzen ere, Udaleko Diruzaintza nagusian. Salbuespenez, bermea abal edo kauzio-aseguru baten bidez eratu denean, kontratazio-organoaren beraren aurrean eratuko da. Erakundeek ez dute behin-behineko bermerik eratu behar estatu edo autonomia mailako arauetan hori egitetik salbuetsita badaude. Halaber, salbuespen horixe bera izango dute lizitatzailerek administrazio kontratatzaile berarekin berme orokorra eratuta badute, berme orokor horrek izango baititu behin-behineko bermeari datxezkion ondoreak. Enpresen aldi baterako batasunetan, behin-behineko bermea batasunean parte-hartzen duen enpresa batek edo batzuk era dezakete, betiere, taldean, klausula honen lehenengo idatz-zatian ezarri den kopurura heltzen badira eta batasunaren kide guztiek modu solidarioan bermatzen badute.

8.2. Behin betiko bermea

SPKLTBko 151.2. artikuluan arautu denari jarraituta, ikuspegi ekonomikotik eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerek egiaztatu behar du esleipenaren zenbatekoaren %5eko bermea eratu duela –BEZ kenduta–, eta, horretarako, errekerimendua jaso duen unetik hasita, bost egun baliodun izango ditu.

Errekerimendua epe barruan behar bezala bete ezean, lizitatzailleak eskaintza atzera botatzen duela ulertuko da.

Bermea eratu daiteke SPKLTBko 96. artikuluan adierazten diren moduetatik edozeinetan, eskudirutan, abal baten bidez, balore publiko zein pribatuekin, kauzio-aseguruaren bidez, edo prezioaren zati bat atxikita, HAKLEOko 55. artikuluan eta hurrengoetan jaso diren modu eta baldintzetan.

Bermea abal edo kauzio-aseguru baten bidez eratuz gero, sinadurak legeztatu egin behar dira. Fede-emaile publiko batek egiaztatuko eta askietsiko ditu sinatzaileen ahalordeak, eta atzealdean jarriko du horren gaineko eginbidea.

SPKLTBko 96.2. artikuluekin bat etorritik, irailaren 27ko 14/2013 Legearen 44. artikulua eman zion idazkeraren arabera –ekintzaileei eta nazioarteko egiteari laguntzeko legea da–, lizitatzailleak behin betiko bermea kontratuaren prezioaren zati bat atxikita eratzeko eska dezake: kontratistari ordaindu beharreko lehenengo fakturatik edo hurrengoetatik kopurua kenduko da, zenbateko osora heldu arte. Hartara, lizitatzailleak idatziz adieraziko dio hori kontratazio-organoari aipatutako bost egun balioduneko epean.

Egin beharreko zerbitzuak nolakoak diren jakinda, ez dago berme-aldirik. Hala ere, ez da behin betiko bermea itzuliko, harik eta kontratuaren indarraldia bukatu eta kontratuaren arduradunak berori behar bezala bete dela adierazi arte, aldeko txosten baten bidez. Horren arabera, bermea itzul daiteke osorik edo zati batez.

9. KONTRATUA BURUTZEA

Baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoaren ezaugarriak ezarritako moduan burutu beharko da kontratua.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolarenpean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo honen aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

*Enpresa esleipendunaren langileen subrogazioa: 1. Zerbitzu hau errepikatzen denez eta hori ematean parte hartzen duen pertsonalaren lan-egonkortasuna bermatze aldera, enpresa esleipendunak langileen subrogazioa bermatuko du, gaiaren inguruan sektoreko hitzarmenek esaten dutena albo batera utzita. Subrogazio klausula kasu hauetan bakarrik aplikatuko da:

a) Lan-kontratua daukan eta kontratua egiten duen erakundearentzat azken sei hilabetean gutxienez lan egin duen langileari bakarrik eragingo dio subrogazioak. Ordezkapenak ere sartuko dira, amaitu arte.

b) Subrogazioak ez die eragingo kontratua lagatzen duen enpresako jabeai, akziodunei, zuzendaritzako kideei, bitarteko karguei eta jabe, akziodun, zuzendaritzako kide eta bitarteko kargu horien bigarren mailako familiartekoei (UDALHITZ).

Esleipenduna derrigorrez subrogatu beharko da langileen lan-harremanetan, baldintza teknikoen orriaren 12. klausularekin bat etorritz.

* Esleipendunak Bermeoko Udaleko zerbitzuei atxikitako langile guztien soldatak ordaindu beharko ditu legeak ezarritako epeetan.

Hori horrela, Udalak edozein momentutan eska diezaioke esleipendunari langileek sinatutako egiaztagiria aurkeztea, non adierazten duten soldatak epe barruan jaso dituztela. Esleipendunak ez badu erantzuten, ulertuko da soldatak ez direla ordaindu epe barruan.

Esleipendunak ez baditu epe barruan soldatak ordaintzen, Udalak hurrengo zigorrak jar ditzake:

Soldata ordaintzeko berandutzea astebete baino gehiagokoa bada: epe barruan ordaindu ez zaion langilearen aurreko hilabeteko soldata gordinaren %5a.

Soldata ordaintzeko berandutzea aste bi baino gehiagokoa bada: epe barruan ordaindu ez zaion langilearen aurreko hilabeteko soldata gordinaren %10a.

Soldata ordaintzeko berandutzea hilabete baino gehiagokoa bada: ulertuko da ez dala bete funtsezko kontratu-betebeharra; eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da 223. f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Urtebeteko epean, behin baino gehiagotan, soldata ordaintzeko berandutzea aste bi baino gehiagokoa bada: ulertuko da ez dala bete funtsezko kontratu-betebeharra; eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da 223. f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

10. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Bereziki, Bermeoko Udalak onartutako Enpresa Jardueren Koordinaziorako betekizunak bete beharko ditu (V. eranskina).

Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Modu berean, sektoreko gertueneko hitzarmen kolektiboa osorik aplikatu beharko die kontratu honekin zerikusia duten langileei.

Esleipendunak betebeharrak horieek zehatz betetzen direla bermatu beharko du uneoro, baita kontratuaren zatiren bat azpikontratatu balu ere.

Lan arriskuen prebentzioa dela-eta, 31/1995 Legeak xedatzen duena bete beharko da zehatz, (V. eranskina) besteak beste:

Laneko arrisku eta lan osasunaren prebentzioa planifikatu eta aldizkako ebaluaketak egin.

Prebentzioko neurri kopuru koherente eta orokorrak ezarri eta euren efektibotasuna kontrolatu.

Lan arriskuen eta lan osasunaren prebentziorik, langilearekiko betebeharrak bete beharko ditu zehatz, hala nola, parte hartze eskubidea, informazio eskubidea, formakuntza eta komunikazio eskubidea

Zerbitzuak ematen jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, Udalari eta herritarrei dagokienean, aurrez-aurreko harreman, txosten eta azalpen guztiak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz burutuko beharko dauz. Udalak euskara baino ez du erabiliko bere harremanetan, idatzizko zein ahozkoetan.

Datu Pertsonalen Babeserako betekizunak zehatz mehatz betetzea: Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko du, beti ere, abenduaren 13ko Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoak, Fitxategi Automatizatueta bildutako datu pertsonalen Segurtasun Neurriari buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak ezarritakoak kontuan hartuz. Kontratu honen ezaugarriak direla-eta, enpresa esleipendunak Udalean lan egingo duen langilearen bitartez, Datuen Tratamenduen arduradun izaera bere gain hartzen du eta nahitaez bete behar dituen legezko betebeharrak, lanbide betebeharrak eta betebeharrak deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko du kontratu honek arautzen dituen atzipenaren menpeko datu pertsonalekiko lanbide sekretua; eta Toki erakundearekin dauzkan harremanak amaitu ostean ere, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo du. Tratamenduaren arduradunaren eginkizuna izango da behar diren neurri tekniko eta antolaketako neurriak ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatu edo galdu ez daitezen eta baimenik gabeko tratamendurik edo atzipenik egon ez daiten.

Honen guztiaren bermea, VI. eranskin legeaz agertzen den konpromisoa sinatu beharko da kontratua sinatu aurretik.

Tratamenduaren arduradunak ez baditu betetzen kontratu honetako baldintzak eta, bereziki behean adierazitakoak gertatzen badira, toki entitatea salbuetsita geratuko da ez betetze horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik:

Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak erabiltzen baditu alde biek kontratu honen bidez hitzartu eta adostu ez duten bestelako helburu baterako.

Tratamenduaren arduradunak datuekiko sekretua gorde beharra edo datuak hirugarren pertsonari ez komunikatzeko betebeharra hausten badu.

Tratamenduaren arduradunak datuak kontratu honetan jasotako edozein baldintza hautsiz erabiltzen baditu.

Goian adierazitako arau haustek egiteagatik edo akordio honetako beste edozein baldintza ez betetzeagatik, tratamenduaren arduraduna tratamendu kontrolatzailatzat joko da, eta berak egindako arau hausteei eta interesdunek Datuak Babesteko Euskal bulegoan aurkez ditzakeen erreklamazioei erantzun beharko die, bai eta ukituei onartzen zaizkien kalte-ordainei ere, euren ondasunetan edo eskubideetan jasandako kalteak direla-eta erantzukizun egintzez baliatzen badira.

Kontratu harremana legez bukatu ondoren, tratamenduaren arduradunak erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira edo tratamendu kontrolatzaileari itzuli behako zaizkio, tratamenduan erabilitako datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumenturekin batera.

Esleipenduna derrigortuta dago hilero Udalera aurkezten egindako zerbitzuen eta izandako istiluen lan-partea.

Kontratu honen xedea gauzatzeko esleipendunak eskaintzen duen langileria guztia esleipendunaren plantillan egon behar da eta ez du Udalarekin inolako lan-loturarik izango.

Esleipenduna derrigortuta dago egiaztagiri fede-emaileaz hilero soldatekin batera, zerbitzu- kontratu honetan diharduten langileen TC1 eta TC2 kotizazio boletinen kopiak eta guztien soldatak epe barruan ordaindu izanaren egiaztapenak Udalean aurkezten.

Kontratua osotasunean betetzeko kontratista izango da zerbitzua behar bezala antolatzeko erantzulea. Gainera, bere langileen gizarte eta lan eskubideak bermatzen direnaren erantzule izango da. Horietan, Udalak ez du inolako zereginik izango.

Esleipendunak, ahal duen neurrian, zerbitzu hau prestatzeko langileen estabilitatea mantendu beharko du. Langileren bat ordezte beharrezkoa bada, bermatu behar du ordezekoak pleguetan eta kontratuetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela. Udalari aldaketa horien berri eman beharko dio.

Berton ezarrikako betebeharrak funtsezkoak dira eta ez betetzeak kontratua suntsiarazteko arrazoia suposa dezake. Hala ere, ulertzen denean ekintza isolatua dela, berreraman daitekeela eta suntsiarazpenarekin interes orokorraren kontra joan daitekeela, suntsiarazpena alde batera utzi eta hurrengoko hertsapen-zigorra ezarriko da: esleitutako prezioaren (BEZa barne) %1 eta %5aren arteakoa arau-hauste bakoitzeko. Portzentaia zehazteko orduan kontuan hartuko dira: larritasuna, berrerortzea eta fede txarra egon bada.

Zigor horietatik independentea da kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz hirugarren batzuei eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordainen gainean kontratistak duen betebeharra.

Zigor eta kalte-ordainok ezartzeko espediante zehatzaile laburtua burutuko da.

Ezartzen diren zigor edo kalte-ordainak berehala betearaziko dira eta zenbatekook kendu ahalko dira Udalak esleipendunari ordaintzeko dauzkan fakturetatik, behin betiko bermetik edota zuzenbide publikoko sarrerak jasotzeko legeak emandako edozein bidetik.

Edozelan ere, kontratistak administrazio-baldintza zehatzen orri honetan, baldintza teknikoaren orrietan edota kontratuetan ezartzen diren bestelako obligazioak bete beharko ditu.

11. KLAUSULA. AZPIKONTRATATZEA ETA LAGATZEA

Kontratistak gainontzekoekin egin ditzakeen azpikontratuak egiteko, SPKLTBko 227., 228. eta 228.bis artikuluetan ezarri diren betekizunak beteko dira. Edozelan ere, esleipendunak, hala bada, gainontzekoekin azpikontratatzeko dituen prestazio partzialak ezin dira izan esleipenaren zenbatekoaren 100eko 60 baino handiagoak. Kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua betetzeko erantzukizun osoa Bermeoko Udalarekin; azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean baino ez dira erantzule izango. Kontratistak ezin du kontratua zati baten azpi kontratatu, ordenamendu juridikoari jarraituta kontratatze gaitasunik ez duten pertsonekin, edo SPKLTBko 60. artikuluan jaso diren egoeraren baten dauden pertsonekin.

Esleipendunak aldez aurretik eta idatziz jakinarazi behar dio administrazioari azpikontratuak egin nahi dituela. Azpikontratatu nahi duen prestazioaren zatia zein den adieraziko du eta baita azpikontratistaren identitatea ere; eta egiaztatuko du beraren gaitasuna aski dela betetzeko, bai erabilgarri dituen osagai teknikoak, giza osagaiak eta baita eskarmentuari ere erreparatuta. Baldin eta azpikontratistak azpikontratatu den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia badu, kontratistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu beharrik. Azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzea

azpikontratua egin eta berehala egin daiteke, baldin eta ezinbestekoa bada larrialdi-egoera bati aurre egiteko edo premiazko neurriak eskatzen baditu, eta hala zuzitzen bada agiri bidez.

Udalak frogatuko du esleipendunak kontratuan parte-hartzen duten azpikontratistei egin behar dizkien ordainketak bete direla. Horretarako, esleipendunak udalari bidaliko dio kontratuan parte-hartzen duten azpikontratisten zerrenda zehaztua, parte-hartzea burutzen denean, haietako bakoitzak dituen azpikontratitze-baldintzekin batera, ordainketa-aldiarekin zuzeneko harremana badute. Era berean, haiek ordaindu dituzten egiaztagiriak ekarri behar dituzte, behin prestazioa ematea bukatu denean legean ezarri diren epeetan; hain zuzen ere, SPKLTBko 228. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean araututakoetan, ezargarri den neurrian.

Betebeharrok kontratua betetzeko oinarrizko baldintzak dira, eta, bete ezean, ordenamendu juridikoan xedatu diren ondoreak sortu ez ezik, plegu honetan jaso diren zehapenak ere jarriko dira.

Kontratu honetatik jaiotzen diren eskubideak eta betebeharrak lagatzeko, SPKLTBko 226. artikuluan arautu denari jarraituko zaio.

12. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratua burutzen dan bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

13. KONTRATUA ALDATZEA

SPKLTB Aren 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehatzetan kontratua aldatu ahalko da.

Herri-onurako arrazoiak direla-eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen I. liburuaren V. tituluko kasuetan ematen diren kontratu aldaketetan, kontratazio organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira esleipendunarentzat, Errege Dekretu Legegilearen 219. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Era berean, aldaketok Errege

Dekretu Legegilearen 108. eta 211. artikuluetan xedatutako prozeduraren bitartez burutuko dira.

14. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA-ETA

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro, kontratuaren prezioaren 1000 euroko (212. artikulua).

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA-ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea eta behin betiko bermea eskuratzea edo hurrengoko zigorrak ezartzea:

Ez -betetze oso larrien kasuan, 500 euroko isuna jartzea. Ez- betetze oso larriak hurrengoak direla ulertzen da:

o Zerbitzuak prestatzen hastea zehaztutako data baino zazpi egun beranduago, salbu eta ezinbesteko kasuetan.

o Zerbitzuak prestatzea gelditzea edo etetea hogeita lau ordu baino gehiago, salbu eta ezinbesteko kasuetan.

o Ez erantzutea berehala salaketa baten ostean edo jakinaren gainean dagoenean ez ohiko edota presazko egoeraz.

o Zerbitzua modu akasduenean edo irregularrean ematen dela agirikoa denean.

o Ez betetze sistematikoa ordutegian.

o Udalaren agindu ofizialei jaramonik ez egitea.

o Plegu hauetan ezarritako edozelako baldintza edo epe ez betetzea.

- Ez -betetze larrien kasuan, 300 euroko isuna jartzea. Ez- betetze larriak hurrengoak direla ulertzen da:

o Zerbitzuak ematean sistematikoa ez den ez-betetzea egotea.

o Parteak ez aurkeztea puntualtasunez, parteetan informazioa faltatzea edo parteen informazioa ez izatea benetakoa.

o Ez betetze arinak errepikatzea.

- Ez -betetze arinen kasuan, 150 euroko isuna jartzea. Ez- betetze arinak hurrengoak direla ulertzen da:

Aurretik zehaztu ez direnak eta zentzu baten orrietan zehaztutako baldintzak kaltetzen direnean; adibidez, langileriaren itxurarekin edo erabilitako baliabideekin zerikusia dutenak.

Zigorrok kontratazio organoak ezarriko ditu eta espediante zehatzaile laburtua burutuko da.

Ezartzen diren zigorrak edo kalte-ordainak berehala betearaziko dira eta zenbatekook kendu ahalko dira Udalak esleipendunari ordaintzeko dauzkan fakturetatik, behin betiko bermetik edota zuzenbide publikoko sarrerak jasotzeko legeak emandako edozein bidetik.

15. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223 eta 308 artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Horretaz gain, kontratua apurtzeko arrazoa izango da plegu honetako 10. atalean xedatutako guztia ez betetzea eta modu berean, 18. atalean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor- edo administrazio-arloko zigorra izatea.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 309. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

16. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

17. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 150. eta 157 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Kontratu hau presaz izapidetuko da, SPKLTBaren 112. artikuluekin bat etorritz. Izan ere, atzera ezineko premia bati erantzuten dio kontratuak eta interes publikoa dela-eta kontratuen esleipena lasterrago egin beharra dago.

SPKLTBko 150. artikuluan arautu denari jarraituta, aurkeztu diren proposamenak balioesteko eta ekonomiaren ikuspegitik eskaintzarik onuragarriena zein den jakiteko, hurrengo irizpideak hartuko dira kontuan:

Gehienezko puntuazioa: 100 puntu

Formula bidez kuantifikatu ezinezko irizpideak. (30 puntu)

- Lan osasunari buruzko hobekuntzak: 10 puntu.

Langileen lan segurtasunaren baldintzak hobetzeko proposamenak, behar bezala zehaztuta, gehienez 10 punturekin baloratuko dira.

- Lan jasagarritasunari buruzko hobekuntzak: 10 puntu.

Lanak jasagarritasun ikuspuntutik burutzeko proposamenak, behar bezala zehaztuta, gehienez 10 puntu.

Ingurumenaren aldetik lanak planifikatzeko teknika guztiak kontuan hartuko dira (erabiliko diren produktuak, beraien dosifikazioa, tresneria, hondakinen kudeaketa, lana burutzeko orduan energia aurrezteko neurriak, eta abar.)

- Zerbitzuarekin lotutako bestelako hobekuntzak, behar bezala zehaztuta: 10 puntu.

Aurreko puntu bietan sartu ezin diren edozelako plegu hauetarako hobekuntzak gehienez 10 punturekin baloratuko dira, adibidez, garbiketen maiztasuna, usain txarren arazoak konpontzeko proposamenak edota egoki ikusten diren beste edozein motatako eskaintzak.

Lizitatzailerak, hala dagokionean, hobekuntzen banakako ezaugarriak eta zehaztasun teknikoak deskribatuko ditu. Eskainitako hobekuntzen laburpen-taula erantsiko da.

Proposatutako hobekuntzak kontratuaren xedeari buruz izango dira. Hobekuntzak balioztatzeari udaleko zerbitzu teknikoek oniritzia eman behar diote eskaintzak balioesterako orduan. Udalak onartu eta baloratu beharko ditu hobekuntzok, eta eskainitako baldintzekin bat etorritz burutuko dira.

Udaleko zerbitzu teknikoen iritziz behar besteko funtzionaltasuna lortzeko aski ez diren hobekuntzak 0 punturekin baloratuko dira.

Hobekuntzen kostua ez da eskaintako aurrekontuan sartuko, eta ezin da aurkeztutako eskaintzatik bereizitako kontzeptu gisa jasanarazi, hobekuntzak doan eskaintzen direlako, udalari ezelako kosturik ekarri gabe.

Formula bidez kuantifikatutako irizpideak. (70 puntu)

- Proposamen ekonomikoa: 70 puntu

Eskaintzarik onenak 70 puntu hartuko lituzke eta gainerako eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira. Horretarako honako formula erabiliko da:

$$P_n = 70 \times (E_o/E_n)$$

P_n , eskaintza ekonomikoaren puntuazioa.

E_o , aurkeztutako eskaintza ekonomikorik baxuena

E_n , eskatzaileak aurkeztutako eskaintza ekonomikoa.

*Kontratu honen esleipenerako, eta 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen laugarren xedapen gehigarrian arautzen denez, lehentasuna ezartzen da minusbaliadun langileen kopurua %2a baino gehigoko plantiladun lizitatzaillearen alde, horrela frogatzen dutenean gaitasun teknikoa kreditatzerakoan, beti ere, hauek aurkezten duten proposamenak eskaintza hoberenaren terminoak berdintzen badituzte, esleipenaren oinarri diren irizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz.

Eskaintzak aurkezteko epearen azken egunean, bere plantilan daukaten minusbaliadun langile kopurua izango da kontuan lehentasun hau aplikatzean, eta III. eranskinaren aitortpenaren bitartez kreditatuko da. Lizitatzailleak aipatutako aitortpen agiria edota eskatutako datu guztiak aurkezten ez baditu, ez zaio lehentasun hau aplikatuko, %2ko minusbaliadun langile kopurura heltzen EZ dela ulertuko delako efektu guztietarako, eta ezin izango du inolaz ere akats hori zuzendu.

Aldi baterako enpresa elkarreetan edota hainbat lizitatzaillek aldi batera parte hartzen badabe, lehentasun hau aplikagarri izango da, langile minusbaliatuen kopuruak aipatutako indizea gaintzen duten plantillak daukatela ulertzen denean, kontratuan lizitatzaille bakoitzaren parte hartzearen proportzioan.

Modu berean, lehentasuna ezartzen da Gizarteratzeko enpresen erregulazioa arautzen duen 44/2007 Legea betetzen dituzten gizarteratze enpresen alde, beti ere enpresak dituen lanpostuen %30ean gitxienez, baztertze egoeran dauden pertsonak kontratatze konpromisoa hartu badute (IV. eranskina). Baztertze egoeran daudela ulertuko da kasu hauetan daudenak:

Gizarteratze Errenta Minimoa edo baliokideak eskuratzen dituztenak.

Gizarteratze Errenta Minimoa edo baliokideak eskuratzeko eskubidea ez dutenak egotaldi edo erroldatze epeak ez betetzeagatik, jasotze unitatea izateko

baldintzak ez betetzeagatik, edota errenta horiek eskuratzeko gehienezko epeak gainditu dituztelako.

- Adin txikiko babespeneko instituzinoetatiko 18 eta 30 urte bitarteko gazteak.
- Errehabilitazio edo gizarteratze prozesuan dauden droga edota alkohol arazodunak.
- Presondegietan preso daudenak, beti ere euren egoerak laneratzea ixten badie eta baita baldintzapeko askatasun egoeran daudenak edota preso ohiak ere.
- Ahalmen-urritasundun pertsonak.

Lehentasun irizpide bi hauek aplikatu eta gero berdinketa mantenduko balitz, prezio merkeena eskaini duen lehiatzailearen alde egingo da esleipen proposamena eta, azken kasu honetan ere berdinketa egongo balitz, zozketaz ebatziko da esleipena noren alde egin.

18. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen teknikoa eta ekonomikoa frogatzen badute, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla-eta. Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 75. eta 78. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso duten enpresek ezin izango dute, zigorrak ezarritako aldi, deialdira aurkeztu.

19. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako leku, ordutegi eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: BERHAZ BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO

ORDUAK: Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzen eta eguenetan 16:30 – 19:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00. *Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

Proposamenak postaz, telefaxeaz edo bide elektronikoz, informatikoz zein telematikoz aurkez daitezke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4. artikuluan aipatzen dituen lekuetatik edozeinetan –Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa da arau hori, HAAPEL-.

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, enpresaburuak zuritu behar du bidalketa zein egunetan egin den postetxean, eta bidali dela jakinarazi kontratazio-organoari telexez, faxez edo telegramaz, egun horretan bertan. Halaber, espedientearen zenbakia, kontratuaren xedearen izenburu osoa eta lizitatzaillearen izena adierazi behar dira.

Telexa, faxa edo telegrama jaso dela egiaztatuko du udaleko idazkari nagusiak bertan eginbidea jarrita. Bi betekizunok ez badaude, proposamena ez da onartuko kontratazio-organoak lizitazio-iragarkian zehaztutako epea igarota jasotzen badu. Edozelan ere, data heldu eta hamar egun igaro badira agiriak jaso gabe, eskabidea ez da onartuko.

Erabil daitezkeen bide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen, gainera, SPKLTBko hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarri diren betekizunak izan behar dituzte.

Proposamenak, aurretik adierazitako leku eta ordutegian aurkeztuko dira 7 egun naturaleko epean, iragarki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Proposamenek hiru kartazal itxi izango dituzte; kanpoaldean adieraziko da zein lizitaziotan parte hartuko den, lizitatzaillearen izen-abizenak edo sozietatearen izena, telefono- eta fax-zenbakiak, eta helbide elektronikoko bat, halakorik badu, bai eta lizitatzaillearen edo ordezkariaren sinadura ere.

- “A” kartazalaren azpiztitulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiria:

SPKLTBaren 146.4 artikuluan aukera ematen du artikuluko bereko 1. idatz-zatian adierazten diren agiriak ekartzeko eskaeraren ordean, lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena ekartzea.

Lizitatzailleak, esleitzeko proposamena bere alde egin bada, kontratazio-organoari egiaztatu beharko dio, kontratua esleitu baino lehen, galdatu zaizkion agiriak badituela eta baliozkoak direla. Gainera, prozesua ondo bukatuko dela bermatze aldera, kontratazio-organoak, esleipen-proposamena eman baino lehen edozein

unetan, lizitatzailerei eska diezaieke kontratuaren esleipendun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten egiaztagiria ekar dezatela. Gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak badituztela kontuan hartzeko une erabakigarria, proposamenak aurkezteko epea bukatzen denean izango da, betekizunok administrazioarekin kontratatzeko nahitaezkoak baitira.

Erantzukizunpeko adierazpena I eranskinean dagoen ereduri egokituko zaio.

-“B” kartazalaren azpтитulua “DOKUMENTAZINO TEKNIKOA” izango da. Kartazal honetan, irizpide ez matematikoak justifikatzeko agiri guztiak eta irizpide ez matematiko horien inguruko dossier bat aurkeztu behar izango dute (orrialdeak zenbatuta dituen), dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko baloratuko diren irizpide ez matematikoei buruzko alderdi oro:

- Lan osasunari buruzko hobekuntzak
- Lan jasangarritasunari buruzko hobekuntzak
- Zerbitzuarekin lotutako bestelako hobakuntzak

-“C” kartazalaren azpтитulua hau izango da: “PROPOSAMENA”. Hona hemen “C” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak

a) **Proposamen ekonomikoa**, eskaintzaileak edo ordeztan duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren pleguaren II. **eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.

- BEZa salbuetsita daukaten lizitatzailak aurkeztuko balira, BEZari dagokion zenbatekoan zero euro (0,00€) jarri beharko lukete.

- Ez dira onartuko proposamen hauek:

- Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
- Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
- Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
- Pleguaren III. eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
- Eskaintzailearentzat bidera ezin egiten duten akatsak dituztenak edo funtsik ez dutenak

- Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko erizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu.

- b) **Lehenespena.** 17. atalean zehaztutako minusbaliadun langileak izateagatik eta gizarteratzeko enpresea izateagatik lehenespena kontuan hartu ahal izateko pleguaren III. eta IV. eranskin gisa agertzen diren ereduak aurkeztu beharko dira.

20. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Behin, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) sailkatuko du, eta, dokumentazio horretan akats materialak somatuz gero, ez dio lehiatzaileari bi egun baliodun baino epe luzeagorik emango akatsa zuzen dezan (Kontratazio Legearen Erregelamenduaren 81. art).

Akatsak funtsezkoak badira edota akats materialak ezin badira zuzendu, ez dira lizitazioan onartuko.

Zuzentze horretatik aparte, Kontratazio Mahaiak, lehiatzaileen kaudimenaren egiaztapena osatzeko jaso ahal izango ditu aurkeztutako ziurtagirien eta adierazpenaren gaineko beharrezko argibideak. Gainera, lehiatzaileei eskatu ahal die bestelako agiri osagarriak aurkeztea bost egun naturalen barruan; eta, beti ere, proposamenen onarpenaren adierazpena egin aurretik.

A kartazala kalifikatuta, onartuen B kartazala zabalduko da (irizpide ez matematikoak).

Horiek plegu honetan zehaztutakoaren arabera baloratzeko Kontratazio Mahaiak beharrezko txosten teknikoak eska ditzake.

Behin A eta B kartazalak kalifikatuta, C kartazala (proposamena eta irizpide matematikoak) zabalduko da jendaurrean. Jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren berri emongo jake aurretiaz lehiatzaileei, faxez edo korreo elektronikoz.

Saio horretan, mahaiburuak bertaratuei aditzera emango die zenbat proposamen jaso diren eta zein den lizitzaileen izena; ildo beretik esango die zein den A kartazalean aurkeztu dituzten agiri orokorren kalifikazioa, onartutako eta baztertutako lizitzaileak zeintzuk diren, eta zergatik baztertu diran. Ondoren, B kartazalaren emaitza jakinaraziko zaie.

Jarraian, mahaiko idazkariak irekiko ditu onartutako lizitatzailleek aurkeztu dituzten C kartazalak, (formula matematikoen bidezko proposamenak) eta proposamenak irakurriko ditu.

Proposamen guztiak irekita, mahaiburuak bertaratuei bide emango die oharrak edo erreserbak egin ditzaten, egoki baderitzote, eta aktan jasoko dira. Gainera, jakinaraziko die erreklamazioa idatziz jartzeko aukera daukatela kontratazio organoaren aurrean 2 egun balioduneko epean. Nolanahi ere, mahaiak ezin du une honetan agiririk aintzat hartu.

Ondoren bukatutzat emango da jendaurreko saioa eta egindako guztia agiri bidez jasoko da.

Hala badagokio, egoki diran txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak esleipena egin behar dauan Kontratazio Organoari pasatuko dio esleipen proposamena. Proposamen horrek ez du eskubiderik sortuko kontratazio organoak esleipen ebazpena igorri arte.

21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Esleipena

Prezioaz gainera beste irizpide batzuk baloratzen direnez, esleipena askoz jota hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatuta.

Edozein kasutan esleipena egin aurretik, esleipen proposamenean agertzen den hurrenkerea jarraituz, zerrendan lehenengo agertzen den parte-hartzaileari, errekerimendua egingo zaio, hau jaso eta 5 eguneko epean, honako hauek aurkezteko:

a) 19. klausulan zehaztutako erantzukizunpeko adierazpenean (A kartazalean "Gaitasuna eta Kaudimena" sartu beharrekoa) 2, 5 eta 6 puntuetan adierazitakoak egiaztatzeko jatorrizko agiriak edo konpultsatuak, hain zuen ere:

- Banako enpresaburuak direnean, nortasun-agiria.
- Pertsona juridikoak badira, eraketa- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko dute, Merkataritza Erregistroan inskribatuta, baldin eta hori eskatzen bada ezargarri zaion merkataritza-legerian. Hori eskatzen ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatuko da eraketa-agiriaren, estatutuen edo eraketa-egintzaren bidez, bertan jaso badira jarduera arautzen dituzten arauak; gainera, hala badagokie, dena delako erregistro ofizialean inskribaturik egon behar dira.

- Espainiarrak ez diren enpresek, baldin eta Europar Erkidegoko estatu kideetakoak edo Europako Eremu Ekonomikoaren Ituna izenpetu duten estatuetaoak badira, jarduteko gaitasuna egiaztatu behar dute SPKLTBko 72.2. artikuluan xedatu denaren arabera.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek jarduteko gaitasuna badutela egiaztatuko dute Espainiak dagokion estatuan duen ordezkari-tza diplomatikoak igorritako ziurtagiri

baten bidez; adierazten duena, edo toki-, lanbide- zein merkataritza-erregistroan edo antzekoan inskribaturik daudela, edo, bestela, tokiko merkataritzan ohikotasunez dihardutela kontratuaren xede diren jardueretan.

Halaber, Espainiako dagokion ordezkari-tza diplomatikoak igorritako txostena ere ekarri behar dute, adierazten duena jatorrizko estatuak, era berean, administrazioarekiko kontratazioan enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela, modu oso antzekoan. Kontratazioaren aurrekontua 5.358.153 euro edo gehiago denean, eta jatorrizko estatuak izenpetu badu Kontratazio Publikoari buruzko Merkataritzaren Munduko Erakundearen Ituna, aipatu berri dugun elkarrekotasun txostenaren ordezt, ordezkari-tza diplomatikoak beste txosten bat igorriko du inguruabar horixe egiaztatuz.

Berebat, atzerriko enpresek bulego bat irekita izan behar dute Espainian, eragiketarak egiteko ahalduak edo ordezkariak izendatu, eta Merkataritza Erregistroan inskribaturik egon.

- Lizitatuzaileak ordezkari bidez diharduenean, ordezkariaren NANren kopia konpultsatua eta ahalorde konpultsatua ekarri behar du, hala ordezkari-tza nola lizitazioan parte hartzeko ahalmenak modu sinesgarrian egiaztatze aldera.

- Lizitazioan hainbat enpresaburuk hartuko badute parte aldi baterako batasun bat eratuz, bakoitzak bere nortasuna eta gaitasuna egiaztatu beharko ditu, eta izenpetzen duten enpresaburuaren izenak, inguruabarrak eta bakoitzaren parte-hartzea zein diren adierazi. Berebat, batasunaren ordezkari edo ahaldu bakarra izendatu behar dute, kontratua hasi eta bukatzen den arte sortzen diren eskubideak eta betebeharrak betetzeko ahalmenarekin. Hala ere, enpresek ahalorde mankomunatuak ere eman ditzakete, kopuru handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

- Atzerriko enpresek adierazpena aurkeztu behar dute Espainiako edozein ordenako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzeari buruz. Hori, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortzen diren gorabehera guztiei begira. Adierazpenean, halaber, uko egingo diote lizitatuzaileari egoki lekiokoen jurisdikzio-foruari.

- Legeak zehaztutako agiri eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen teknikoak.

- Legeak zehaztutako agiri eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena

- Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela egiaztatzea Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorren 15. artikuluan zehaztutako eran.

- Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatuzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bazarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

b) Kontratua gauzatzeko erabili edo jarri beharreko bitartekoak, 64. artikuluan arabera hitzemandakoak, benetan dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu,

- c) Behin betiko bermea.
- d) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldien gastuak ordaindu.
- e) Baldintza-orri administratibo hauetan zein baldintza-orri teknikoetan lan-osasun eta segurtasun betebeharrak frogatzeko beharrezkotzat jo diren agiri guztiak aurkeztu (Enpresa Jardueren Koordinazioa, V. eranskina).
- f) Lan-istripuen eta sortzen diren kalteen aseguruak ituntzea zerbitzu aldian zehar, erantzukizun zibileko 300.000,00€eko estaldura minimoarekin.

Ziurtagiriok bide elektronikoetatik, informatikoetatik edo telematikoetatik igor daitezke indarrean dagoen legediarekin bat etorriz.

Epe horretan aurkeztuko ez balitu, uko egiten duela ulertuko da eta zerrendako hurrengokoari deituko zaio aipatutako horiek egin ditzan. Uko egiten duenaren, behin behineko bermea Udalaren esku geratuko da.

151.2 artikuluan zehaztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik hasita 2 egun balioduneko epean kontratazio organoak kontratua esleitu du.

Guztiarekin, esleipena motibatua izan beharko da, lizitatzaleei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, webgunean publikatuko da (151.4 artikuluan xedatutako gutxieneko eduki eta baldintzak jarraituz).

Formalizazioa eta gastuak

Esleipendun eta lizitatzaleek esleipenaren notifikazioa jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epe barruan egingo da formalizazioa (156.3 artikulua).

Formalizazio burutzeko esleipendunak honako hauek burutu beharko ditu:

- Udal bulegoetan, kontratua formalizatu aurretik, datu pertsonalak eta informazio konfidentziala babesteari buruzko klausula (VI. eranskina) aurkeztu beharko dau behar dan moduan bete eta sinatuta.
- Udal bulegoetan kontratua administrazio-agiri gisa formalizatu.

Esleipena parte hartzaileei jakinarazoteaz gain, formalizazioa web orrialdean argitaratuko da eta, kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa denez, BAO n ere publikatuko da (formalizaziotik 24 eguneko gehinezko epean, 154.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz).

Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena. Konkretuki, egin ahalko da korreo elektronikoz, lehiatzaileek edo hautagaiek euren proposamenetan zehaztutako helbidean.

Kontratazio-organoak egingo dauan esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu esleipen irizpideak aldatzea eragingo duten klausularik. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua formalizatu arte ezingo da berori gauzaten hasi.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen gainean.

22. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hasia erabakitzen badu, hautagai edo lehiatzaileei jakinaraziko die.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera konpentsatuko zaizkie.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiak bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hasia berehala.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

23. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 19. artikulua arabera, baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta prestatzea, esleitzea, ondorioak eta azkentzea lege horren eta bera garatzeko xedapenen pean izango dira; administrazio baldintza zehatzen orri honek eta baldintza tekniko zehatzen orria zein horien eranskinak aplikatuko dira; horien ordezkari modura, administrazio

zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Era berean, loteslea izango da esleipendunaren eskaintza (proposamena aurkezteak berekin dakar enpresaburuak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza horien eduki osoa, inolako salbuespenik gabe) eta kontratua formalizatzeko agiria.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta baldintza tekniko zehatzen orriaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da kontraesanak arlo juridikoko eta administratibokoak direnean, zein guztiz teknikoak ez diren edozelako kontraesanak direnean. Guztiz teknikoak diren kontraesanean baldintza tekniko zehatzen orria nagusituko da.

24. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpon daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Bermeon, 2017ko abuztuaren 11an

I ERANSKINA

.....jaunak/an
dreak, helbideaduenak
eta NAN zenbakiaduenak, bere izenean
edo(ordezkaritzako ahalmenak
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,
.....
enpresaren, egoitza soziala.....eta
IFK zenbakia.....dituenaren izenean,

Nire erantzukizunpean ADIERAZTEN DU:

1. Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen ditudala eta onartzen ditudala.

2. Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarri diren baldintzak betetzen ditudala, leialtasunez, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak galdatzen duenaren arabera, eta bertan zehazten diren zehaztapenekin eta baldintzekin –Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onetsi zuen arau horrek–.

3. Ez nagoela (eta/edo ordezkatzeko duen enpresa, administratzaileak edo ordezkariak ez daudela) kontratatzeke ezelako debeku- eta bateraezintasun-egoeratan; hau da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak 60. artikuluan xedatu dituenetan, bertan zehazten diren zehaztapenekin eta baldintzekin – Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onetsi zuen arau horrek–.

4. Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean nagoela (eta/edo ordezkatzeko duen enpresa), indarreko xedapenek ezartzen dituztenetan; eta, orobat, ez dudala (eta/edo ordezkatzeko duen enpresak) zerga-zorrik ordainarazpen-aldian Bermeoko Udalarekin. Hartara, administrazio-kontratatzaileari baimena ematen diot, esleipendun proposatuz gero, informazio hori eskura dezan, hitzarmenik sinatu duen beste herri-administrazio batzuen datu-baseen bidez.

5. Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, altan nagoela.

6. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor edo administrazio-arloko zigorra jaso ez dutela.

7. Bermeoko Udalarari baimena ematen diot kontratu honi lotutako eskakizun, berri emate eta jakinarazpen mota guztiak posta elektronikoko bidez bidaltzeko behean ageri den helbidera, legeak ezarritako ondorio juridikoekin.

Helbide elektronikoa:

8. Era berean, konpromisoa hartzen dut kontratazio-organoaren aurrean egiaztatzeke, kontratua esleitu baino lehen edo Udalak eskatzen didan bestelako momentuan, lege eta pleguetan zehazten diren agiriak baditudala, eta baliozkoak direla.



Eta dagozkion ondorioetarako idatzita jasota gera dadin, adierazpen arduratsu hau sinatzen dot,n, 2017ko.....(r)en....(e)an.

sinadura”.



II. ERANSKINA

Proposamen ekonomikoaren eredia

.....jaunak/an
dreak, helbideaduenak
eta NAN zenbakiaduenak, bere izenean
edo(ordezkaritzako ahalmenak
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,
.....
enpresaren, egoitza soziala.....eta
IFK zenbakia.....dituenaren izenean,

AITORTZEN DAU:

I.-
xedeak daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.

II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela eta onartzen dituela.

III.- Ordezkatzen dudak enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.

IV.-Aipatutako kontratuaren betearazpena
..... (zenbakitan eta
hitzetan) eurotan, BEZ kanpo, proposatzen dudala. BEZari dagokion zenbatekoa
.....€koa (zenbakitan
eta hitzetan) izango dala.

Bermeon, 2017korenan.

Sinatuta:

**III. ERANSKINA:
MINUSBALIADUN LANGILERIARI BURUZKO AITORPENA.**

.....jaunak/an
dreak, helbideaduenak
eta NAN zenbakiaduenak, bere izenean
edo(ordezkaritzako ahalmenak
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,
.....
enpresaren, egoitza soziala.....eta
IFK zenbakia.....dituenaren izenean,

Erantzunkizunpean Adierazten dau:

1.- Agiri honek aurkezteko dataz, goian aipatutako enpresak ondorengo langile kopuru eta motak dauzkala:

- MINUSBALIADUN langileen kopurua, guztira:.....

- Enpresaren plantilakoak direnak eta besteren kontura lan egiten duten lagileen kopurua, autonomoak eta bere kontura lan egiten duten langileak baztertuta, guztira:

- Enpresaren plantilako langile guztien artean, MINUSBALIADUN langileek suposatzen duten portzentaia, autonomoak edota bere kontura lan egiten duten langileak baztertuta, guztira:

Aitorpen hau kreditatzeko asmoarekin, administrazio honek enpresa lizitatzaileri eskatzen dizkion agiri guztiak entregatzeko konpromezua hartzen du.

Bermeon, 2017koarenan.

IV. ERANSKINA:

GIZARATERATZEKO ENPRESEA IZANDA, LANPOSTUEN %30EAN GUTXIENEZ BAZTERTZE EGOERAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO KONPROMISOA.

.....jaunak/an
dreak, helbideaduenak
eta NAN zenbakiaduenak, bere izenean
edo(ordezkaritzako ahalmenak
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,
.....
enpresaren, egoitza soziala.....eta
IFK zenbakia.....dituenaren izenean,

Erantzunkizunpean aitortzen du:

Ordezkatzen duen enpresak Gizarteratzeko enpresen erregulazioa arautzen duen 44/2007 betetzen duela.

Beraz, baldintza hori beteta, **adierazten du:**

Baldintza agirietako 17. atalean aipatutako esleipen lehentasuna aplikatze aldera, enpresak dauzkan lanpostuen %30ean gutxienez, baztertze egoeran dauden pertsonak kontratatzeiko konpromisoa hartzen dela.

Bermeon, 2017koarenan.

V. ERANSKINA

ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA

LAPLko 24. artikulua garatzen duen, urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuko 10.2. artikuluan adierazten den bezala, lan arriskuen prebentzioaren arloko enpresa jardueren koordinazioaren barnean, enpresaburu nagusiaren zaintzako betebeharren barruan, enpresa kontratistei hurrengo agiriak aurkezteko eta kreditatzeko eskatzen zaie.

Horregatik ondorengo agiriak aurkeztu eta kreditatu beharko dira:

- ✓ Zerbitzua emango duen enpresa kontratistaren **arduradunaren izendapena**.
- ✓ Kontratutako zerbitzuetan garatu beharreko jardueretako **lanpostu ezberdinen lan arriskuen ebaluazioa** eta **prebentzio neurrien** agirien kopia.
- ✓ Bermeoko Udaleko lantokian zerbitzua eskainiko duten langileen **zerrenda eguneratuta** eta langile horiei emandako **arriskuen informazioaren** erregistroaren kopia.
- ✓ Langile horiek prebentzio arloan hartu duten **formazioaren** erregistroaren kopia.
- ✓ Langile horien **lan gaitasunaren** mediku ziurtagirien kopia.
- ✓ Zerbitzua emango duten langileei **norberaren babeserako ekipoen ematearen** erregistroen kopia (langileei eman bazaie).
- ✓ Enpresa kontratistaren **prebentzio baliabidearen** izendapena (izendatua balego).
- ✓ **Erantzukizun zibileko** aseguruaren polizaren kopia eguneratua (baldintza pleguetan aurkeztu ez bada).

OHARRA: Goian eskatzen diren agiriak kreditatzerakoan, Bermeoko Udaleko gune eta lantokietan zerbitzua emango duen enpresa kontratistaren langileen agiriak baino ez dira aurkeztu beharko.

VI. ERANSKINA

DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZIO KONFIDENTZIALA BABESTEARI BURUZKO KLAUSULA

.....jaunak/a
ndreak, helbideaduenak
eta NAN zenbakiaduenak, bere izenean
edo(ordezkaritzako ahalmenak
adierazi; administratzaile bakarra, ahaldun...) gisa,
.....
enpresaren, egoitza soziala.....eta
IFK zenbakia.....dituenaren izenean,

AITORTZEN DU:

Kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko kontratuzko hartu-emanari jarraiki,
BERMEOKO UDALarentzat obrak/ zerbitzua/ lanak egingo dauzala.

Obra/zerbitzua/lan horiek egin/emateko, BERMEOKO UDALAK,
.....enpresari datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategietara sartzeko
baimena eman behar badio, enpresak datu pertsonalak eta datu pertsonalen
fitxategiak BERMEOKO UDALAREN kontura erabiliko dituela.

Sarrera hori emoteagatik, horrela behar izatekotan, ezin daitkeela inola ere ulertu
lagapen, emate edota Datu Pertsonalen zein Fitxategien transferentziarik dagoenik.

..... enpresak, udalaren datuez kanpo, kontratuaren xede diren egitekoetarako,
jasotzen dituen bestelako datu pertsonalak zein konfidentzialak, Bermeoko Udalaren
izenean egingo dituela, kontratu honen helburua den proiekturako soilik erabili ahal
izango dituela, udalaren titularidadekoak izango direla, eta datuen jasoketan Datu
Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan eta horren garapenerako araudian
ezarritako eginbideak beteko direla.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat eginez,
12. artikuluan, dagozkien pertsonen eskubideak bermaturik gelditzeko eta datu zein
fitxategi horreetara sartzean jarraitu beharreko legediari eutsiz agintzen den
“hirugarrenek egindako tratamenduak idatziz egindako kontratuan arautuko dira”
adierazpenean oinarrituta eta datu pertsonalen jasoketan araudiak exijitzen dituen
zehaztasun, informazio, ardura eta arretan oinarrituta eta, era berean
konfidentziasunak eskatzen dituen bermeak kontuan edukita, enpresak
onartzen dituela hurrengo

AITORPENAK

LEHENENGOA .- *Muga*

.....enpresak, BERMEOKo UDALArek ardurapekoak diren datu pertsonaletara eta fitxategietara helduko da lotzen duen kontratuzko hartu-emanaren izakera juridikoa eta funtzio ekonomikoak horrela eskatzen badu, eta, betiere, kontratatutako obra/zerbitzua/lanak hobetzeko beharrezkoa izanez gero.

.....enpresak ezin izango ditu, ezelan ere, BERMEO UDALAK itxitako datu pertsonalak zein konfidentzialak, bestelako helburuetarako erabili, daukaten akordioan bildutakoak betetzeko baino. Horretaz gain, enpresak ezin izango die hirugarrenei zabaldu kontratatutako zerbitzua betetzeko ez bada, ezta kontserbatzeko bada ere, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

.....enpresak ezin izango ditu, inola ere, BERMEO UDALArekin duen kontratu hau betetzeko udalaren izenean eta kontratu honen xede den helbururako jasotako Datu Pertsonalak eta konfidentzialak bestelako helburuetarako erabili, daukaten akordioan bildutakoak betetzeko baino. Jasotako datuok udalaren izenean egiten dituela informatu beharko du, eta datu-bilketea honako araudiek agindutakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoa, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, otsailaren 25eko 2/2004 Legea eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretua.

Horretaz gain,enpresak ezin izango die hirugarrenei zabaldu kontratatutako zerbitzua betetzeko ez bada, ezta kontserbaziorako bada ere, Bermeoko Udalaren idatzizko baimenik gabe.

BIGARRENA .- *Araudia*

.....enpresak Datu Pertsonaletara eta Fitxategietara egindako sarbidea, Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoaren xedapen zehatzak eta garapen araudi ezargarriek arautuko dute.

.....enpresak Datu Pertsonalen arautegiak, tratamenduaren arduradunari ezartzen dizkion eginbeharrak eta betekizunak eta datu pertsonalen jasoketan kontuan eduki beharrekoak bere gain hartzen ditu. Halanda ze, Datu Pertsonalen Babeserako Legeak garatzen duen berme aginduarekin bat eginez, datuen izakerearen arabera eta ezartzen diren tratamenduen arabera, behar diren neurri teknikoak, antolaketakoak eta behar diren neurriak diseinatzeke, ezartzeko eta gordetzeko konpromisoa eta betebeharra ditu.

HIRUGARRENA .- *Ardurea*

Legeak BERMEOKo UDALA “arduradun” izendatzen du dagokion administrazioaren zein auzitegiaren aurrean.enpresak, “eragileak”, BERMEOKo UDALAK emandako aginduak beteta, zuzenean edo zeharka Datu

Pertsonalen mendekotasunak sortzen dituen erantzukizun guztiak bere gain hartzen ditu.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak edota eskumena daukan beste erakunderen batek, erantzukizunaren egozketa edo gatz-kalteakaitiko ordainen erreklamazioa egingo balio Bermeoko Udalari, BERMEOKo UDALAKenpresaren aurka jo leike Jurisdikzino Zibil Arruntaren aurrean, dagozkion itzulera eta konpentsazio ekintzak bideratzeko, baita beste edozein egiazko, ahalezko, moralezko zein etorkizuneko gatz-kalteak konpentsatzeko ere eta, berdin, informazio konfidentzialak era desegokian erabiltzen badira.

LAUGARRENA .- *Konfidentzialtasuna*

.....enpresek, sarbidea daukan datu pertsonalen zein eskuratutako informazio konfidentzialen isilpeko izakera gordetzeko eta inori ez zabaltzeko konpromisoa hartzen du, baita kontratatutako obra/zerbitzu/lanetatik kanpo ez erabiltzeko konpromisoa ere.enpresak bere ardurapeko langileek ez dituztela datu pertsonal horiek zabalduko bermatzen du, baita modu desegokian ez dituztela erabiliko ere.

Konfidentzialtasun eginbehar horrek, BERMEOKo UDALaren ardurapean dauden datu pertsonaletara edo fitxategietaraenpresak egindako sarbidea dela-eta, Bermeoko Udalarekin egindako kontratuaren helburua lortzeko honen izenean jasotako bestelako datu pertsonalak dirala-eta, zein eskuratutako informazio edota datu konfidentzialak direla-eta, sortutako zerbitzu hartu-emana amaitu ostean ere iraungo du egitez edo eskubidez, itxura, era eta denpora albo batera itxita.

BOSGARRENA.- *Ebazpena*

Akordio honek muga bako iraupena dauka, baina obra/zerbitzu kontratuen hartu-emanaren iraupenarekin lotuta dago.enpresak, obra/zerbitzua/lanak amaitu eta gero, zerbitzua betetzeko erabili duen euskarria deuseztatu egingo du, baita kopiak eta bestelako euskarriak ere (informatikoak izan zein ez), beti ere, Udalak itzultzeko eskatzen ez badio.

SEIGARRENA.-*Ezarri daitekeen jurisdikzinoa eta legeria*

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa eta lege hori garatzen duen araudia ere ezarri ahal izango dira. Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren ebazpenak ere hartuko dira oinarritzat.

Klausula honen interpretazioak edo ezarpenak sor ditzakeen zalantzak, desadostasunak zein bestelako arazoak eta eztabaidak, Gernika-Lumoko Auzitegiaren mende ipiniko dira. Bi aldeek uko egiten diote Antolamendu Juridikoaren arabera eskumenak dituen beste epaitegiei.



Bermeon, 2017koarenan

